

# humor eibarreis

## Kayetano'n Urteerak

Kasino Artistako kantoiko bentanen euan batian, kalerutz begira esan ei zetsen laguneri:

—An/ joia nere aintxianako nobixia. Entzutuziaz bat, abixau ziran lagun guztioi Kaitanon aintxianako nobixia nor izan zan jakitzeko. Ta an ikusi eben Emilia, bere andria.

—o—

Kaietanok bere ago-mifian erabilten zitxuan esaera bi ziran:

Tontuan seniderik urrenengua arrua. Bada gauza bat gutxiago daukanak geixago daukanari emoten detsana: lotsia.

—o—

Marixa ei zan zorien lorrazkak aldia guztietan lagatzen zitxuana. Urrinietik ziar baño ezpazan be, Kaitanon senidtxarteko eitzen ei zan, ta sarri juaten ei jakon illetia joaz diru eske al ebanian berriz itzultzekotan. Baña aren al izatiak aiñ urrisak ei ziran eze, ari



emondako diruak paseko usuana eitzen ei eban: juan da geixago etorri ez.

Or bein, beste askotan moduan, nun agertu jakon biarrian euan lekura bertara. Ikusi orduko, Kaitanok esan ei eban berekautan: «Emen dator Marixa, itxuraz larrixka onek dauka arpegia. Izango da oñ be diru egarrixa,

ta Kaitanontzat boltzilluan zulo barrixa: au, gauza agirixa.

—Ai! Kaitano, ointxe estu nago ba. Baitxa neu be,

—...ez dakitz zer ikusi biar dodan.

Kaitanok bere buruari: «Nik ba-jakinat ba zer ikusi biar dodan». Baña gure Kaitano beti bezela errukitsu:

—Zer pasatzen jatsu, ba?

—Ogei duro falta ditzuk. Derrigor biar nitxuke.

Ara ba. Autziz amar bai, da olan bixok amarna duro galduko ditzuguz.

—o—

Olakuak dira Kaitanon urtera zelebiak. Geriako sakristauak ez eukan arrazoi makala (Gerratian, Eibar-tik aldetik, Gerian egon ei zan) esan zetsanian urtera bategaitxik barre-algarak eiñ ondoren: «Ene! Kaitano, «Kudranuan» eskribitzeko moduko gauzak esaten ditxuzu zuks».

Juan San Martin.



—Debe ser uno de esos matrimonios que llaman modernos.



—Ya no me quieres. Has cambiado la porra por un muslo de diplodocus.